

[Berria.info](#) » [Papereko Edizioa](#) » [Iritzia](#)


2012-07-11

ZUZENDARIARI

19 kamera

TOMAS ANJEL GONZALEZ ZABALBETIA. ABANTO-ZIERBENA.

Jon Arretxeren liburu berri honetan gaur egungo Bilboko San Frantzisko auzoa erretatua ikus dezakegu, droga, sexu merkea eta miseria gorriaz gainezka. «Afrika txikia» deitutakoa da protagonisya zentzu jakin batean, oso ondo marraztua dagoen Toure gizon afrikarra pertsonaia nagusiaren paperean hezur-mamitua.

Umore berezi eta finarekin, Arretxek erakusten du auzo madarikatu horren barruko errealitate desatsegina. Aurreritiz haratago, gizaki askok nola bilatzen duten eguneroko bizimodua islatzen du.

Modu erakargarri batean aurkezten du, nolabait, pertsonen arteko maitasunak eta elkartasunak ia muga guztiak apur ditzaketela. Hori da, nire ustez, liburu honek duen irakaspenik zuzenena.

Alta, auzo horretan, ditugun datu guztien arabera, botere politikoak esperimendu berezia egiten du, nahi duenean hor bizi direnekin kontrol sozialerako frogak asmatuz eta beste une batzuetan errealitate gordina ikusiko ez balu bezala beste batera begiraturaz. Pertsonaia baten hitzetan: «Gure agintariak oso eroso daude Bilboko zaborra hemen pilaturik dagoen bitartean. Noizean behin apur bat garbituko dute».

Zorionez, aurrera doalako prozesua, beste hizkuntzetan bezain duina, kalitate handiko beste eleberri beltz bat daukagu aurrean gozateko. Eraitza horretara heltzeko, idazleak frogatzen du erraztasun nahikoarekin garatzen duela prozesu sortzailea.

Albisterik...

IRAKURRIENAK

Bozkatuenak

Bidalienak

- 1 **Gidari bat hil da bart Mallabian, Trabakua gainean izan den istripuan**
- 2 **Izagirrek dio Ibazetak badakiela egin zuena "onartezina" dela**
- 3 **Elur jauzia batean gutxienek sei mendizale hil dira Mont Blancen**
- 4 **Zezenek arriskua sortu duten arren, garbia eta azkarra izan da seigarren entzierroa**
- 5 **AEBetako Ordezkarieran Ganberak Obamaren osasun erreformaren aurka bozkatu du**



Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa